



2. ERANSKINA

HAUR HEZKUNTZAKO GRADUA

2012-2013 Ikasturtea

Kulturartekotasuna eskolan.
Hezkuntza inklusiboaren bidean.

Egilea: Miren Baranguan Yarza

Zuzendaria: Iñaki Gaminde Terraza

Data eta sinadura: Leioan, 2013ko ekainaren .18an



ZUZENDARIAK O.E.



EGILEAK O.E.

AURKIBIDEA

Sarrera.....	4
1. Esparru teorikoa eta kontzeptuala.....	5
2. Metodologia.....	15
3. Lanaren garapena.....	17
4. Emaitzak eta ondorioak.....	21
5. Erreferentzia bibliografikoak.....	23
ERANSKINAK	26
1. Eranskina. Abestiak.....	26
2. Eranskina. Jolasak.....	28
3. Eranskina. Istorioa.....	30
4. Eranskina. Hitz eta esamoldeak.....	31
5. Eranskina. Web orria.....	35

**KULTURARTEKOTASUNA ESKOLAN.
Hezkuntza inklusiboaren bidean.**

Miren Baranguan Yarza
UPV/EHU

Lan honen helburua gaur egungo eskoletan inklusioaren bidean kulturartekotasuna lantzea da. Horretarako Tagalo hizkuntzan oinarritu eta honetan agertzen diren abesti, jolas eta hainbat material desberdin batu dira, ondoren eskolan lantzeko proposamen bat eginez. Lehenengo atalean, historian inklusiora heltzeko eman den ibilbidea azaltzen da. Bigarren atalean, metodologian, azken emaitza sortzeko, web orria, eman diren pausuak agertzen dira. Ondoren, lanaren garapenean, proposamen didaktikoak egin dira eta azkenik, emaitza zein izan den eta hauen ondorioak ikuskarazten dira, honen helburua kulturartekotasuna bermatuko duen eskola lantzea dela.

Inklusioa, kulturartekotasuna, etorkinak, Tagaloa, IKT

El objetivo de este trabajo es trabajar la interculturalidad con el fin de conseguir una escuela inclusiva. Para ello nos hemos basado en el Tagalo y se han recopilado canciones, juegos, historias... para después hacer una propuesta didáctica. En el primer punto se habla sobre el camino recorrido en la historia para llegar a la inclusión. En la segunda parte, la metodología, se cuenta la forma de trabajar que se ha utilizado para realizar la página web. A continuación, en el desarrollo del trabajo, se presentan las propuestas didácticas y por último se muestra el producto final con sus respectivas conclusiones con el fin de garantizar una escuela que trabaje la interculturalidad.

Inclusión, interculturalidad, inmigrantes, Tagalo, TIC

The aim of this work is to deal with interculturality in order to have an inclusive school. In order to do it, we have based our research on Tagalo language and different songs and games have been gathered to work on them at schools. First of all, the development of language inclusion has been explained. Secondly, regarding methodology, to build up the last results, steps carried out in the web are shown. To carry on, in the development of this work, didactic proposals have been made. Last but not least, the results and the conclusion drawn from them are exposed; the goal is to create a school where interculturality is guaranteed.

Inclusion, intercultural, immigrants, Tagalo, ICT

Sarrera eta justifikazioa

Lan honen asmoa kulturartekotasuna garatzeko Tagalo hizkuntzan jasotako umezaroko tradiziozko ahozko ondarearen material batzuk eskolan erabiltzeko proposamen didaktiko bat egitea izan da. Ikasketetan garatutako gaitasun askoren erlaziotik sortutako lana da eta IKT-en bidez egindako web orri baten agerkarazten da azken emaitza.

Aukeratutako gaia hezkuntza berrikuntzaren alorrean kokatzen da. Izan ere, horrezkero badira bi hamarkada inklusioaren inguruan hitz egiten eta lantzen ari dela bai hezkuntza formalean, baita informalean ere, nahiz eta oraindik asko garatu ez den. Beraz, hau kontuan hartuta eta gaur egun teknologia berriek hartu duten indarra aintzat hartuz, aurkeztuko den web orrian IKTen hainbat baliabide eskainiko dira.

Ondorengo lerroetan lan honen **helburu zehatzak** zeintzuk diren aurkeztuko dira, beti ere egungo aniztasunari erantzuna emateko eta elkarbizitzarako tresna gisa hartuta:

1. Gaur egungo jendarteko kultur aniztasunari erantzuna emateko inklusioa lantzea.
2. Kulturartekotasuna elkarbizitzarako tresna gisa baliatzea.
3. Filipinetako Tagalo hizkuntzaren berri izatea eta eskolan hurrekin zelan landu daitekeen ikusteko material sorta bat prestatzea. Material hau, beste hizkuntza batzuk lantzeko gisa moduan erabil daiteke.
4. Elebitasuna eta eleaniztasuna bultzatzea eta honen garrantziaz jabetzea.

1. Esparru teoriko eta kontzeptuala: aurrekariak eta egungo egoera

Atal honetan lana aurrera eramateko landuko diren esparru teoriko eta kontzeptualak azalduko dira, aurrekarietatik hasi eta egungo egoerara iritsi arte. Hasteko, inklusioaren inguruko sarrera bat egingo da. Gero, globalizazioaren ondorioz sortutako migrazio mugimenduak aztertuko dira eta ondoren honek ekarri duen aniztasun kulturala eta kulturartekotasunaren beharraz hitz egingo da. Kulturantzatasunak dakarren hizkuntz aniztasuna kontuan hartuta, hezkuntza sistemak elebitasunaren inguruan egin duen ibilbidea azalduko da. Amaitzeko, Tagalo hizkuntzaren egoera zer nolakoa den aurkeztuko da.

Inklusioa, 90.hamarkadan Tailandian, hezkuntzari buruzko munduko konferentzian azaldu zen kontzeptua da. Aniztasunaren ondorioz sortzen diren gatazkak kudeatzeko agertzen den ikuspuntu berria da. Honen helburua, gutxiengoa gehiengoaren parte izatea dela. Hauen erlazioak, hartu emanean funtzionatzen dute, bietako inor gutxituz edota gailenduz; hau da, baloratuz (UNESCO, 1990).

Horrela, 1990.urtean LOGSE (Hezkuntza Sistemaren Antolamendu Orokorreko Legea) ezartzen da (LOGSE 1/1990, de 3 de octubre); hau da, denontzako hezkuntza eta denon artean eraiki beharrekoa, integrazioa zena ideia nagusia.

EAE-ko dekretuari erreparatu baldin badiogu, bertan hainbat aipamen egiten zaizkio ondorengo atalei (12/2009 DEKRETUA):

- *9.artikulua. Ikastetxeare Hezkuntza Proiektua: (...) euskal gizartearen eta ikastetxearen beraren testuinguru sozioekonomikoari eta kulturalari erreparatu behar zaio, bai eta ikasleen ezaugarriari eta premiei ere (...).*
- *11.artikulua. Ikastetxearen Curriculum proiektua: (...) ikastetxe bakoitzeko hizkuntza-aukeretara eta baliabideetara egokitu beharko du (...).*
- *18.artikulua.- Aniztasunaren trataera: oinarritzko hizkuntza irizpidea da (...)*
- *19.artikulua. Hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleen trataera: (...) Hezkuntzazko inklusioa eta indibidualizazioaz mintzatzen da.*

Kulturantzatasuna aipatzen da “ingurunearen ezaguera” atalean, eta honela dio Dekretuak:

Kultura-aniztasunak haurrak gizarte-ohituretara ea-usadioetara hurbiltzea gomendatzen du, bai eta beren inguruko kultura eremuetara hurbiltzea ere. Eta, hori guztia, gizartean dauden askotariko modu eta adierazpen kulturalak ezagutzeko aukera emango dien ikuspegi ireki eta integratzailetik. Horrela, haekiko errespetua izango dute eta estimatu egingo dituzte (12/2009 Dekretua. Ingurunearen ezaguera).

Beraz, hau ikusirik antzeman genezake lan honetan hitz egiten gabiltzan, kulturartekotasuna, inklusioa etab. oraindik garaturik ez dagoela dekretuan. Izan ere, inklusioa soilik behar bereziak dituzten haurren atalean soilik agertzen da. Kulturartekotasuna aldiz, ez da inon aipatzen, nahiz eta jarrera batzuk prozesu honetakoak izan, baina azken aipamen honetan kultura-aniztasunaz dabil, integrazioaren ikuspuntutik.

Horrela ba ikusi dugu arlo honi Dekretuak ez diola aipamen berezirik egiten. Eusko Jaurlaritzak Hezkuntza sailetik azken urteotan hainbat programa argitatu ditu, horien artean honako hauek dira aipatzekoak:

- *Ikasle etorkinentzako hezkuntza-arretarako programa eskola-eradu inklusibo eta kulturartekoaren barruan. 2012-2015 (2012a).*
Hezkuntza sailak badu, "Aniztasunaren arretarako plan estrategikoa, eskola eredu inklusibo baten barruan".
- *Eskola inklusiboaren esparruan aniztasunari erantzuteko plan estrategikoa 2012-2016 (2012b).*



Informazio iturri desberdinak kontsultatu ondoren, gure helburua lortzerako bidean hiru alde landu behar direla ikusten da. Ondorengo hau da sortu den sailkapena:

- 1- Heziketa premia zehatzak dituzten pertsonak.
- 2- Arazo sozialak dituzten pertsonak.
- 3- Kulturartekotasuna landu behar duten pertsonak.

1994an UNESCOk, Espainiko gobernuaren kolaborazioarekin Salamankako deklarazioan, aldarrikapen desberdinak egin zituen. Bertan komunitate internazionalari filosofia honekiko babesa emateko eskatu ziotelarik (UNESCO eta MEC, 1994:7-8).


Gure kasuan kulturartekotasunaz hitz egingo dugunez, lana aurrera eramateko hirugarren multzoan oinarrituko da.

Inklusioaren ideia agertu aurretik, historian zehar azaldu diren kontzeptu eta ideiak besteak beste, 1.en eta 2.en tauletan adierazten dira (Parrilla Latas, 2002:15):

<p>Baztertzea: eskolan eta jendaratean.</p>	<p>Segregazioa: ikasteko eskubideaz ohartu baina aparteko eskola batean.</p>
<p><u>Arrazoiak:</u> Sexu, kultura edota ezintasunen batengatik</p> 	<p><u>Arrazoiak:</u> Hezkuntza-politika bereziak sortzen dira talde desberdinetarako. Adib.: gorrak beraien eskola berezia izatea.</p> 

1. 1. taula. Bazterketa eta segregazioaren definizioak.

Gaur egun oraindik, nahiz eta 1990.hamarkadan landu zen kontzeptua den inklusioa, integrazioaz mintzatzen da. Bien arteko desberdintasunak 3.irudian eta 4.irudian ikus daitezke.

<p>Integrazioa: eskola berean baina gela desberdinetan</p>	<p>Inklusioa: eskola inklusiboa; denak elkarrekin bizi dira</p>
<p><u>Arrazoiak:</u> Jendarte aldaketa eta demokraziarantz eta berdintasunerantz bidea. Talde desberdinak eskola arruntzean sartzeko helburuarekin erantzun berriak ematen dira: ulerkortasuna, hezkidetzeta eta integrazioa</p> 	<p><u>Arrazoiak:</u> Berdintasun eta inklusioan oinarritutako jendarte eraikitze premia eta era berean, ezberdintasunak gainditzeko eskola sortzeko premia ikusten da.</p> 

2. 2. taula. Integrazioa eta inklusioaren definizioak.

Honen bestez, integrazioaren eta inklusioaren artean agertzen diren aldeak erkatu daitezke era labur baten 3.taulan.

INTEGRAZIOA	INKLUSIOA
- Kolektiboan oinarrituta	- Pertsonan oinarrituta
- Pertsona egokitzen da	- Taldea egokitu
- Normala/ ez-normala	- Aniztasuna
- Taldean bereiztuta	- Denak osatzen dute taldea

3. taula. Integrazioa eta inklusioaren arteko aldeak.

Lanarekin aurrera jarraitzeko beharrezkoa ikusten da ondorengo bi kontzeptu hauek argitzea. Hona hemen bi definizioak:

- **Etorkinak:** Bizi baldintza hobekak bilatzeok asmoz, bere sorterritik kanpoko hiri, eskualde nahiz herrialde batean bizitzen jarri den pertsona (Eusko Jaurlaritza 2004). Bertakoen ikuspegitik kanpotik datorre pertsona; bereziki, lan-arazoengatik, berea ez den herri batera bizitzera doana (Harluxet hiztegi entziklopedikoa, 2013).
- **Atzerritarrak:** Espainiako Lege Organikoaren arabera, atzerritarrak espainiar nazionalitatea ez duena dela dio (LOGSE 1/1990, de 3 de octubre).

Horrela ba, bi kontzeptu hauen definizioak argituta, ikusi daiteke, atzerritarra beste herrialde batera dihoan edonor dela. Aldiz, etorkina, beste herrialde horretara bizi baldintzak aldatzeko intentzioarekin dihoana da.


Azken urteotan, migrazio mugimenduak medio, jendartean gertatzen ari den fenomeno esanguratsuenetako bat da globalizazioa.

Dinamika ekonomikoak eta garapen teknologikoak planetaren distantziak txikitu egin dituzte, eta dirua, mezuak, pertsonak eta merkantziak, azelerazio berri batez, mundu osoari bueltaka dabilta (...)(Barcena, 2003;9).

Lehenago existitzen zen egoera honek, orain garatu den migrazio mugimenduen eragina izan du. Honek, herrialde guztiak egoera eta errealitate berri batera ohitzera ekarri du, egungo pluralismo kulturalari erantzuna eman beharko diona. Bilakaera honen datu zehatzak 4.taulan eta 1.grafikoan erakusten dira.

	Biztanleria			
	EAE	Bertakoa	Atzerritarra	Hazkundera
1998	2.098.628	2.083.430	15.198	
1999	2.100.441	2.083.648	16.794	1.596
2000	2.098.596	2.077.456	21.140	4.346
2001	2.101.478	2.074.040	27.438	6.298
2002	2.108.281	2.069.873	38.408	10.970
2003	2.112.204	2.062.973	49.231	10.823
2004	2.115.279	2.056.113	59.166	9.935
2005	2.124.846	2.051.952	72.894	13.728
2006	2.133.684	2.048.142	85.542	12.648
2007	2.141.860	2.043.336	98.524	12.982
2008	2.157.112	2.039.775	117.337	18.813
2009	2.172.175	2.039.310	132.865	15.528
2010	2.178.339	2.038.970	139.369	6.504
2011	2.184.606	2.039.350	145.256	5.887
2012	2.193.093	2.041.199	151.894	6.638
2013	2.190.230	2.042.065	148.165	-3.729
1998-2013	91.602	-41.365	132.967	132.967

4. taula EAE biztanleriaren garapena (Ikuspegi 2013)



1. grafikoa Ikasle etorkinen bilakaera EAEn.
Eusko Jaurlaritz (2012a)

Horren ondorioz, aniztasun kulturala faktore berri bilakatu da. Aditu desberdinen ikuspuntuak kontuan hartuta, honela zehazten ditugu hurrengo kontzeptuak: **Kulturantzitasunaz** ari denean, herrialde edota toki batean biltzen diren kultura desberdinez dabil; **Kulturartekotasunaz** ari garenean aldiz, aniztasun horrek dakarren

aberasgarritasunaz mintzatzen da. Hezkuntzaren ikuspuntutik, ikuspegi berria da, korrante pedagogiko bat baino harago doana; horretarako jendartea ulertzeko eta antolatzeke irizpideak ezarriko dira.

Julianok (1993:14) honako hitz hauek idazten ditu “La diferencia cultural, no es un obstáculo a salvar sino un enriquecimiento a lograr”.

Behin bilakaeraz laburpen txiki bat eginda, ingurunearen azterketa orokor bat azalduz, gure eremura hurbilduko gara, hau da, eskolara. Alabaina, jendartearen errealtatearen isla dela ezin dugu ukatu. Hortaz, gure erronkak garatzeko gune aproposa da.

Dolores Julianok argitaratutako liburuan (1993:19) Bourdieu eta Paseronek aztertu zuten legez (1970) honela dio:

La escuela reproduce en la práctica la estratificación social y la discriminación sexual y étnica que teóricamente debía compensar. Pero la escuela es un elemento no aislable dentro de un sistema social y resulta difícil evadir el rol que tiene asignado: legitimar la estructura existente, la que a su vez legitima a la institución escolar otorgándole prestigio.

1996.urtean Delors txostena sortzen da XXI.mendeko hezkuntzari erantzuna emateko.

Honen helburua honako hau da “alcanzar el alma de los aprendizajes más preciados y urgentes en estos tiempos” (Jordán, 2012).

Aipatutako ezagutza horiek eskuratzeko, Delors txostenean (1996) ondorengo oinarritzko lau zutabe hauek landu behar direla ikusten da:

1. Ezagutzen ikastea: ingurua ulertzeko beharrezkoak diren baliabideak lortzean datza.
2. Egiten ikastea: inguruan eragiteko aukerari dagokio.
3. Batera bizitzen ikastea, besteekin bizitzen ikastea: giza-ekintza guztietan parte hartzea, kooperatzen ikastea.
4. Izaten ikastea: guztiz garatzeko pertsona orori pentsatzeko askatasuna ematea zentzu guztietan (sentimenduak, epaiak, eta abar).

Elkarrekin bizitzen ikastea da, mende berriko hezkuntzak mantendu beharreko lau zutabeetako bat. Txosten honek jendartean ageri diren erronkak, pertsonak jasango duen tentsio eran aurkezten ditu. Tentsio hauek beraien identitatean eragingo dute. Osotasuna lortzeko, 4 zutabeak beharrezkoak dira, baina *elkarrekin bizitzen jakitea* eta *izaten jakitea*, garrantzi handia hartzen dute. Izan ere, bi hauek lantzen baitute bereziki, pertsonaren garapena, besteekiko ezagupena, harreman enpatikoa... hau da, hasieratik hitz egiten egon garen kulturartekotasunarekin eta inklusioarekin harreman zuzena du (Sáez Alonso, 2001).

Gure eskoletara iritsiko diren haur eta gazteak, beraien herrialdeetako hizkuntza jakiteaz gain, iritsitako herri hortako hizkuntza ikasi beharko dute. Era honetan, gogoan izan behar dugu gure herria elebiduna dela. Horretarako, kontuan hartu behar dugu ikasle berri hauek eleanitzak izango direla etorkizun hurbilean.

Historiari erreparatzen baldin badiogu, izan duen ohitura psikologiko eta pedagogikoari aipamena egin behar zaiola ikusten da. Igansi Vilak (2004) "*Aspectos psicolingüísticos en el desarrollo bilingüe*" artikuluan honako bi data hauek aipatzen ditu bakoitzaren ikuspuntua azalerauz:

- Lehenengoa, Luxemburgoko Konferentzia (1923) "Condenar el bilingüismo escolar y de recomendar el mantenimiento de la lengua familiar como lengua vehicular de contenidos. De esta manera se retrasaba lo máximo posible la incorporación de una segunda lengua en la enseñanza".
- Bigarrena, UNESCOk (1952) egindako batzarrean Parisen honela dio "La mejor forma de enseñar a una niña o niño es mediante su lengua materna. (...) De manera que independientemente de la lengua dominante en el medio social, se mantenía la propia lengua del escolar como lengua de enseñanza. En la actualidad estas posiciones requieren importantes matizaciones (...)"

Ignasi Vilak (2000), esaten duen moduan, bai murgiltze eta baita azpiratze programa biak dituzte etxeko eta eskolako hizkuntza desberdinak. Baina batek, emaitza positiboak ditu eta besteak aldiz, eskola porrota dakartza.

Murgiltze programa (Inmersión)	Azpiratze programa (Submersión)
<ul style="list-style-type: none"> - Voluntaria - Se preocupa por el desarrollo de la lengua familiar del alumnado. - Se adoptan estrategias didácticas que intentan reproducir el proceso “natural” 	<ul style="list-style-type: none"> - Obligatoria - No se preocupa por el desarrollo de la lengua familiar del alumnado. - Carece de estrategias

5.taula. Murgiltze eta azpiratze programaren arteko desberdintasunak. Vila, Ignasi 2000;147

3.taulan azpiratze programa eta murgiltze programaren arteko desberdintasunak azaldu dira. 5.taulako eskemaren berezitasunak kontuan hartuta, programa bakoitzaren zehaztapenak aurkeztuko dira hurrengo lerroetan (Garay, Urtza 2011;79):

- **Azpiratze programa:** Bere helburua hizkuntz gutxituko ikasleek bere hizkuntza eta kultura alboratzea eta gehiengoarengatik ordezkatzeta da, honela dio Xabier Bilbaok (1998):

Orokorrean, arrakasta gutxikoak hartzen dira (...) bertan aritutako haur askok ez baitu eskolatzea bukatzen eta gutxi iristen baitira, gehiengoaren kulturako hurrekin alderatuz, goi-mailako hezkuntzara. Gainera eskolatze mota honen eragin kaltegarri orokorra haurrek beren jatorrizko hizkuntza alboratu eta gutxietsi egin ohi dutela da, eskolako hizkuntzan ere maila apala lortuz gainera: elebitasun kentzailea da ondorio nagusia.

- **Murgiltze programa:** helburua ikasleak elebidun orekatuak izatera iristea da. Irakaskuntza prozesuan bigarren hizkuntza ondo ikastea, lantzea eta ama hizkuntza ere gordetzea eta lantzea da.

Bilbao (1998), Navarro Sierra (2003) eta beste aditu batzuen hitzetan hauek dira programek bete behar dituzten baldintzak (Garay, Urtza 2011:80):

- Antolatzaileak ikasleen beharrian linguistikoak betetzen saiatu behar dira, hizkuntza bakoitzari tokian tokiko ikasleek dituzten ezaugarrien araberako denbora eta tratamendua emanaz.
- Irakasleek ikasleen ama-hizkuntza jakin behar dute, hauen beharrez ere egokia jabetzeko.

Bigarren hizkuntza jokabide komunikatiboaren bidez irakatsi behar zaio ikasleari. Hau da, hizkuntza bera gai bat balitz bezala irakatsi beharrean, ikalea bigarren hizkuntza ulertzera eta erabiltzera eramango duten ekintza eta egoerak sustatu behar dira.

Horretarako oso garrantzitsua da irakasleak ikaslearen hizkuntzaren aldeko jarrerak hartzea.

Si la alumna o el alumno observan que el profesorado aprecia, valora, e incluso utiliza algunos términos de su lengua materna como forma de acercamiento afectivo, no sólo se reafirma la identidad de la niña o el niño, sino que se produce una elevación de la autoestima que propicia el éxito académico. Por eso, si el alumnado no se ve “presionado” por el hecho de tener que abandonar por completo su bagaje cultural –y, por lo tanto, su lengua materna- se producirá una mejora del rendimiento escolar (Rivera, 2011).

Azkenik, hasieran esan den bezala, zilegi izan bekigu, Filipinen gainean jardungo dugunez gero, bertako hizkuntzaren eta historiaren berri jasotzea, laburki bada ere.

“El pasado y el presente del español en filipinas” (Filipová, 2007) testuak kontatzen duen bezala, Filipina Asiako hego ekialdean dagoen herrialdea da. Biztanleriari dagokionez, munduko 12.estatu populatuena da, 90 milioi biztanlerekin.

Historiari erreparatuz, Espainiako kolonia izan aurretik, harremanetan egon zen Asiako hainbat herrialderekin, hala nola: India, Arabia,Txina eta Japon.

Tagoloari dagokionez, austronesiar hizkuntz familiarren barruan kokatzen den malayo-polinesio azpi taldean sailkatzen da. Bertako hizkuntzak Asiako hego-ekialdean eta Itsaso barean zehar hedatzen dira.

7109 uhartek osatzen dute herrialde hau, hauetako bakoitzaren hedadura oso desberdina da bata bestearekin erkatuz gero. Egoera honek hauen artean hizkuntz aniztasun handia izatea dakar; herrialdeko txoko guztiak kontuan izanda guztira 185 hizkuntza kontatu dira, horietako 4 jada desagertuta daude. Hauetatik 43 instituzionalizatuta daude, 70 garatzen, 45 indartsu, 13 arazoekin eta 10 hil zorian (Ethnologue Languages of the World, 2013).

Honek ez du esan nahi uharte bakoitzak bere hizkuntza duenik; hau da, hizkuntzak eta dialektoak beraien artean gurutzatu eta gainjartzen dira edo jarraipen geografikorik ez duten tokietara hedatzen dira.

1935. urtean Tagaloes hizkuntza naizionalaren oinarri izendatu zuen Manuel L.Quezon presidentek. Gaur egungo hizkuntza ofizialak ingelesa eta filipinoa (pilipino) dira eta

dialektoak: Bataan, Batangas, Bulacan, Lubang, Manila, Marinduque, Puray, Tanay-Paete, Tayabas.

Tagalo hizkuntzak bai gaztelaniaren eta baita ingelesaren maileguak ditu. Gaztelaniaren kasuan XV.mendean hasi zen prozesu motela izan zen, baina eragin handia izan zuena.

Ondorengo 6.taula honetan bi hizkuntzen, gaztelania eta tagaloaren artean dauden antzekotasun batzuen adibidea aurkezten da:

TAGALUZ	GAZTELANIAZ	TAGALUZ	GAZTELANIAZ
Hepe	Jefe	Relos	Reloj
Kumpisal	Confesar	Harina	Harina
Oras	Horas	Kotse	Coche
Siya	Silla	Saklolo	Socorro
Kabayo	Caballo	Gobiyerno	Gobierno

6.taula Gaztelaniaz eta Tagaloz antzekotasunak dituzten hitzak

Hala ere, badira beste batzuk ere *“false friends”* deritzen hitzak; hau da, esanahi bera dutela pentsarazten digute itxuragatik, baina bi adierazten dituzte. 7.taulan adibide batzuk agertzen dira:

TAGALUZ	GAZTELANIAZ	ANTZEKOTASUNA
Aparador	Gabinete de ropa	Aparador
Baho	Huele mal	Bajo
Barkada	Pandilla	Barada
Sabi	Decir	Sabe
Siguru	Quizás	Seguro
Siempre	Por supuesto	Siempre
TAGALUZ	GAZTELANIAZ	ANTZEKOTASUNA
Lupa	Suelo, tierra	Lupa
Luto	Cocinar	Luto
Maske/maski	Sin embargo	Más que
Sugal	Jugada con dinero	Jugar
Kasí/kasé	Porque, es que	Casi
Palengke	Mercado	Palenque

7.taula *“false friends”*
(Ethnologue 2013)

2. Metodologia

Atal honetan lana burutzeko erabili den metodologia azalduko da: informatzaileen ezaugarriak, elkarrizketaren prestaketa, datuak jasotzeko metodologia, datuak aztertzeko baliabideak, bideoen prestaketa eta, azkenik, web orria egiteko prozesua.

Behin gaia eta beronen helburak zehaztu ondoren marko teorikoa mugatzeari ekin zitzaion eta hau guztia zehaztu ondoren informatzailek lortzen hasi ginen. Hau guztia zehaztu ondoren, informatzaileak topatzea lan nahiko erraza izan zen, familiako baten laguna baitzen. Beraz, laister kontaktuan jarri eta aurrera egin genuen. Guztira hiru izan dira lan hau aurrera eramaten lagundu duten pertsonak: aurrena, Filipinetan bizi zen eta orain dela 32 urte iritsi zen Euskal Herrira. Ordutik, Eibarren bizi da. Tagaloz jakiteaz gain, ingelesez, gaztalaniaz eta euskaraz hitz egiten du. Bigarrena, bere lehenegusinak ere parte hartu du, baina honek 8 urte daramatzaz hemen bizitzen. Azkenik, lehenengoaren bikotea, nahiz eta Euskalerritarra den, honek Tagaloz hitz egiten badaki eta prozesuan hau ere laguntzen egon da.

Behin harremana sortuta, lana zertan zetzan eta zer nolako metodologia erabiliko zen azaldu zitzaion. Horretarako hasieran interneten web orri desberdinetan topatutako informazioa aukeratu zen *Mama lisa's world (1996-2013)* izeneko orrialdetik hainbat abesti, jolas etab. batu eta beraieri emango zitzaizkien laguntza moduan. Elkarrizketa egin, datuak jaso... eta hurrengo egunetan grabazioak egin ziren. Modu honetan, abestiak eta bestelakoak artxibatu ziren, beranduago bideoak montatu eta baliabide gisa erabiltzeko.

Behin elkarrizketa guztia prest zegoela, datuak jasotzeko ondorengo lerroetan aurkeztuko diren programen bidez burutu zen. Grabazioak "Audacity" programarekin egin dira. Hauek egin eta gero beharrezkoak ez ziren zatiak moztu eta audio fitxero berriak sortu dira. Honetaz gain, transkripzioak egin dira informatzaileen laguntzarekin; abestien esanahiak euskarara ere itzuli dira. Nahiz eta kantuen istorioa azalduta egon, itzulpena egitea beharrezkoa ikusi da, esanahi zehatza zein den jakiteko. Horretarako, informatzaileen laguntzaz, hauen zentzua galdu ez dadin ahalik eta zehatzen ahalegindu gara egiten.

Behin fitxeroak prest edukita, "*Movie maker*" programa erabili da bideoak montatu eta karaoke eran jartzeko. Horretarako irudi bat aukeratu, letrak jarri eta ahotsa gehitu zaio. Hemen garrantzitsuena letra soinuarekin batera irtetea da; hau da, letra irakurtzeko denbora izatea, aldi berean abesteko. Abestiez gain, jolasak ere batu dira. Jolasen kasuan azalpena Tagaloz eta euskaraz daude. Hauetako bakoitzak irudi baten laguntza dauka errazago uler dadin.

Amaitzeko, datu guztiak batu eta sailkatu ondoren web orriaren diseinuari ekin zitzaion.

Egindako ahots eta irudi grabazioak, lehen aipatu bezala bideo bihurtu eta hurrengo pausoa "*Youtube*"-ra igotzea zen. Horretarako kontua sortu eta sarera igo dira. Publiko ez izatea bermatu da ematen duen aukeran "*oculto*" botoia sakatuz.

Web orria sortzeko hainbat aukera izan ondoren, "*Google*"-k eskaintzen duen "*Google sites*" aukera erabiltzea erabaki da: erabiltzeko erreza, dohainik eta baliagarria baita gure lanerako.

Behin orrialdea non egin behar zen erabakita zegoela, nola diseinatuko zen pentsatu beharra zegoen. Hainbat bozeto, plantila etab. egin ondoren, egokiena iruditu zaiguna aukeratu dugu.

Azkenik, sortutako orrialdean material guztia, gehi proposamen didaktikoak aurkezten dira. Batzuk era tradizionalen idatzita agertuko dira. Beste batzuk aldiz, sareak eskaintzen duen "*Webquest*"-ak egiteko aukerarekin aurkezten dira.

Aipatu diren programa hori guztiak aukeratzearen arrazoia nagusienetakoak bi dira: erabiltzeko errazak eta dohakoak izatea. Beraz, edozein momentutan edonork baliabide ekonomiko handirik izan gabe horrelako baliabide bat sortzeko aukera izan dezake.

3. Lanaren garapena

Metodologia atalean azaldu den bezala, datuak lortu ondoren hauek azalerazteko web orria egin da. Hurrengo atal honetan jaso ditugun datuak eta eurok eskolan erabiltzeko proposamen didktikoak aurkezten dira.

Ondoren agertzen den 8.taulan, jasotako material zer nolakoa den azaltzen da. Horretarako, sailkapen txiki bat egin da eta kopurua zehaztu da.

Abestiak	Kopurua: 8	Hitz eta esamolde majikoak	Kopurua: 12
<ul style="list-style-type: none"> - Maligayan Kaarawan - Sampung mga daliri - Paat, tuhod, balikat, ulo - Ang lobo ko - Magtanim ay'di biro - Tong, tong, tong, tong - Leron, Leron sinta - Bahay kubo 		<ul style="list-style-type: none"> - Zenbakiak - Agurrak - Norbaiti buruz zerbait jakitea nahi dugunean... - Asteko egunak - Hilabeteak - Sentimenduak - Animaliak - Eskolako tokiak - Koloreak - Tamainak - Formak - Denbora markak - Zaporeak 	
Jolasak	Kopurua: 4	Ohiturak	Kopurua: 1
<ul style="list-style-type: none"> - Patentero - Iring-iring - Tumbag preso - Pusa at so 		<ul style="list-style-type: none"> - Ang pasko sa filipinas 	

8.taula. Abesti, hitz, jolas eta ohituren taula

Jasotako informazioa kuantitaboki eta kualitatiboki sailka daitezke. Alde kualitatiboaz mintza garenean, prozesu honetan jaso diren abesti, jolas eta hitz eta esamolde kopuruari egiten dio erreferentzia.

Bestalde kualitatiboki jasotako informazioaz ere mintza gaitzke. Izan ere, abestiek badute bere jatorria eta hauen azalpenak jaso dira. Ikus 1.eranskina.

Hori dela eta, zer nolako materiala dugun eta honekin zer egin nahi den kontuan hartuta, orriaren diseinuaren nondik norakoak zehaztea errezagoa izan da.

Hasteko sarrera baten beharra ikusten da, bertan web orriaren helburuak zeintzuk diren azaltzeko eta honen banaketa zer nolakoa izango den azaltzen. Lau atal nagusi ditu:

1. Zer nahi dugu jakin?
 - a. Sarrera
 - b. Abestiak
 - c. Jolasak
 - d. Istorioak
2. Proposamen didaktikoak
3. Hitz eta esamolde majikoak
4. Lotura interesgarriak

Ondorengo lerroetan bildutako materialarekin proposamen didaktiko batzuk aurkeztuko dira. Izenak dioen bezala, proposamenak dira; horren ondorioz, hauek norberaren ikasgelaren errealitatera moldatzeko aukera dago.

Testu guztian zehar aipatu den bezala, Tagaloan inguran, hau da, Filipinetan hitz egiten den hizkuntza eta kultura baten inguruan gaude lanean. Beraz, hau aurrera eramateko garrantzitsua da, aurrenetik non dagoen azaltzea gure ikasleak kokatu daitezken. Askotan, Haur Hezkuntzako ikasleak txikiegiak direla iruditzen zaizkigu eta horrelako dimentsioetan lan egitea zaila dela pentsarazten gaituzte; horrekin amaitu beharra dago. Hurrekin hamaika gai desberdin landu daitezke, helduekin egiten den lez. Horrela ba, ikasgelan edota eskolan lantzen den proiektuaren barnean proposamen hau sartzea egokia litzateke, gero inguru horretan landuko diren abesti, jolas eta istorioen nondik norakoak zeintzuk diren jakin dezaten.

Kantu zein jolasak ez daude zertan ikasgela barruan, ordu zehatz batean landu behar. Hau da, norberaren esku geratzen da noiz landu: ikasgela barruan, jolas orduan, psikomotrizitate saioan, musikan... Edo hauek txandakatzen joan daitezke egoera desberdinetara moldatuz.

- **Abestu eta dantzatzeko:** 1.eranskina

Abestiak Tagaloz egoteaz gain, euskaraz itzulpena irakurtzeko aukera ere badago. Honekin batera bideoa ikusteko URL-a agertzen da.

Garrantzitsua da beste herrialde eta kultura bateko jolas, abesti edota istorio kontatzera goazenean, hau kokatzea. Horretarako, abesti bakoitzarekin sarrera txiki bat egin da, hurrekin lantzean istorioa kontatu ahal izateko.

Istoria kontatzeko, irudiak, marrazkiak etab. eraman daitezke ikasgelara eta hauek erakusten diren bitartean galderak egin, zer pentsatzen duten entzun eta ondoren denon artean benetako istorioa zein den jakingo da.

Ondorengo hauek dira abestiak:

- Magtanim ay 'di biro "Arroza lantzea ez da txantxa"
- Ang loboko "Puxika bat"
- Tong, tong, tong, tong
- Leron, leron sinta "Leron, Leron maitea"
- Bahay kubo "Txabola bat"

Hurrek oraindik ez dakite irakurtzen, edota ikasten dabilta baina euskaraz. Beraz, abesten baldin badute, entzumenaren bidez heltzen zaien fonologia erabiliko dute, nahiz eta ondo ez duten ahozkatuko. Hala ere, hori ez da garrantzitsuena. Inportantea da abestea, dantzatzea, mezua elaraztea eta gozatzea. Beraz, nahiz eta abestiek koreografiarik ez duten, hezitzaile bakoitzaren esku egongo da bat asmatzea eta dantzatzea.

Hurrengo bi abestiak ordea, badute zelan dantzatu. Hauek gorputzeko atalak lantzen dituzte, eta abesten dihoan bitartean esaten duena ukitzen datza.

- Sampung mga daliri "Hamar behatz"
- Paat, tuhod, balikat, ulo "Behatzak, belaunak, sorbalda, burua"

Abestiekin amaitzeko, azkena, Maligayan kaarawan da "Zorionak zuri". Hau urtebetetze egunetan abestu daiteke. Bertan jaiotako ikasleren bat baldin badago

berari abestu dakiok, edota alderantziz; bera animatzen baldin bada, eta gure laguntzaz, norbaiten urtebetetzeak direnean Tagaloz abestu daiteke.

- **Jolasak:** 2.eranskina

Jolasen artean, badaude bi hemen ere ezagunak direla:

- Patentero "Armiarma jolasa"
- Iring iring "Xagu txiki, Xagu maite"

Bi hauen dinamika bera da bi inguruetan beraz, hauek azaldu daitezke eta hemengoekin alderatu. "Patentero" jolasaren kasuan, bertan 4 pertonak jolasten dute; hemen aldiz, inoiz ez da mugarik jarri. Bestean, "Iring iring", hemen abesti baten bidez bideratzen da jolasa, eta honetan aldiz, ez dago abestirik baina sistema bera da.

Geratzen diren beste bi jolasak "Tumbag Preso" eta "Pusa at Aso" hemen parekorik ez da aurkitu, beraz jolasa azaldu eta denok jolasteko aukera izango dute.

- **Istorioa:** 3.eranskina

